LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Laugarren Hiruhilekoa 2023

lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

EDUKIA

- TESTUINGURU EKONOMIKOA 4
- LANBIDEN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA 5
- AFILIAZIOA GIZARTE SEGURANTZAN 6
- KONTRATATUTAKO PERTSONAK ETA KONTRATUAK 7
- OKUPAZIOA ETA LANGABEZIA, BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTAREN ARABERA (BJA) 8

*Txosten honek, **2023ko laugarren hiruhilekoan**, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez.*

Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Testuinguru ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) urtez urteko hazkundea %1,6koa izan da hirugarren hiruhilekoan, 2023 urte osorako aurreikusten den hazkundea %1,8ekoa ere izanik

Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %1,6 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokienez, 2023an EAEko BPG %1,7ra helduko da, eta 2024an hazkunde-tasa % 2,1ean kokatuko da.

Hiruhilekoaren urte arteko aldakuntza-tasa egonkortu egin da sei hiruhilekoren ondoren. Ikus daitekeenez, 2023an balio erantsia hazi egin da industrian, eraikuntzan eta merkatuko zerbitzuetan, baina 2022an baino erritmo txikiagoan.

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 0,4 igo zen 2023ko hirugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, "Koiuntura DI-DA batean 2023ko urtarrila" txostena.

Espainiako ekonomiari dagokionez, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2022 urtean, Estatistika Institutu Nazionalare (EIN) arabera, %5,8ekoa izan da. Consensus Forecast-en arabera, urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena % 2,3koa da 2023 urterako eta 2024 urterako %1,3koa.

Euroguneko ekonomiari dagokionez, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2022 urtean, Eurostat-en arabera, %3,4ekoa izan da. Consensus Forecast-en arabera, 2023rako BPGren urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena % 0,5ekoa da eta tasa bera 2024rako.



Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2023ko urtarrila" txostena.

Bestalde, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) bere azken txostenean aurreikusten du munduko ekonomia moteldu egingo dela epe ertainera. Horrela, 2023an % 3,0ko hazkundea izango dela eta 2024ean % 2,9koa adierazten du. Azken batean, ikusten da COVID-19aren pandemiaren hasierako gorakada handi baten ondoren, suspertze-erritmoa moteldu egin dela. Hainbat indar susperraldia geldiarazten ari dira: batzuek pandemiaren, Ukrainako Errusiako gerraren eta fragmentazio geo-ekonomikoaren gorakadaren epe luzeko ondorioak islatzen dituzte; beste batzuk ziklikoagoak dira, eta horien artean daude inflazioa murrizteko beharrezkoa den moneta-politikaren gogortzearen ondorioak, zor handi baten erdian laguntza fiskala kentzea eta muturreko gertaera klimatikoak. Urte honen hasierako erresilientzia ekonomikoaren zantzuak eta inflazio orokorraren murrizketan egindako aurrerapenak gorabehera, ekonomia, oro har, aurrepandemiaren azpitik dago oraindik, batez ere sortzen ari diren eta garatzen ari diren ekonomietan.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruaren hiruhileko arteko bilakaera %1,0 igo da: +1.883 gizon eta -829 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** %1,0 igo da 2023ko hirugarren hiruhilekoan (+1.054 langabe); guztira erregistratutako langabe kopurua 107.779 pertsonakoa izan da, urte arteko jaitsiera -%2,7ekoa izanik.

3. Grafikoa. **Lanbiden erregistratuko langabezia**
(Pertsona kopurua)



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua +1.883 pertsonatan igo da gizonezkoen artean eta -829 pertsonatan jaitsi da emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 46.474 pertsonatan kokatu da eta 61.305 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren igoerarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 45-54 urte bitarteko segmentuan gertatu da (+618); ondoren, 35-44 urte bitartean (+536) eta 54-64 urte bitartean (+169). Hala ere, 16-24 urte bitartean eta 25-34 urte bitartean langabetu kopurua -247 eta -22 pertsonatan jaitsi da, hurrunez hurren.

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan %1,8eko igoera izan da langabetu kopuruan. Araban eta Bizkaian %0,7eko igoerak izan dira.

4.Grafikoa. **Lanbiden erregistratutako langabeziaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera**
(2023 H4 vs 2023 H3; %)



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu atzerritarren kopurua +%6,6 igo egin da eta bertako langabetu kopurua -%0,2 jaitsi da. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 19.837 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 87.942 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan igoera handiena izan duen taldea Oinarrizko ikasketak dituztena izan da (+%2,5), jarraian Lanbide Heziketako ikasketak dituztenena (+%1,4) eta Batxilergo ikasketak dituztenena (+%0,7). Unibertsitate ikasketak dituztenen taldean, aldiz, zertxobait jaitsi da erregistratutako langabezia (-%6,4).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan igoera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: *Enpleguarekin uztartutako jarduerak* (+1.298), *Nekazaritza eta abeltzaintza* (+269), *Jaki eta edari zerbitzuak* (+247), *Ostatu zerbitzuak* (+160) eta Handizkako merkataritza (+123). Langabetu kopurua jaitsi den jardueren artean, *Hezkuntza*ren taldea nabarmentzen da (-591), ondoren *Txikizkako merkataritza* (-320), *Laguntza egoitza-establezimenduetan* (-174), *Herri Administrazioa* (-166) *eta Posta Zerbitzuak* (-128).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.012.947 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino +%1,8 gehiago

EAEn 2023ko laugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.012.947 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino +%1,8 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino +1,9 gehiago.

5. Grafikoa. **Afiliazioa Gizarte Segurantzan, EAEn** (Pertsona Kopurua)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %51,7a gizonezkoak dira eta %48,3a emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino 0,6 puntu gutxiago).

6. Grafikoa. **Afiliazioa Gizarte Segurantzan EAEn, sexuaren arabera** (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,2); jarraian Gipuzkoan (%33,3) eta Araban (%16,5). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hiruretan igo da afiliatu kopurua: Bizkaian +10.805 pertsonatan, Gipuzkoan +4.012 eta Araban +3.137.

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: *Manufaktura industria* (%17,2), *Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa* (%13,5); eta *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%11,4). 2023ko hirugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan jaitsiera jasan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: *Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza* (-2.535), *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* (-1.584), *Ur hornidura eta saneamendu jarduerak* (-146) eta *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (-107). Beste aldetik, igoera izan duten jarduerak ondorengoak dira: *Hezkuntza* (+12.439), *Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak* (+2.299), *Ostalaritza* (+1.831), *Beste zerbitzu batzuk* (+1.350), *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikak* (+1.211) eta *Handizkako eta txikizkako merkataritza* (+1.194)

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua -%0,9 murriztu da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua 91.635 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %9,0koa da, afiliatu autoktonoena %91,0koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa -%1,6 jaitsi da eta emakumezkoen afiliazioa ia kopuru berean mantentzen da (aurreko hiruhilekoan baino 14 pertsona gutxiago). Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa Araban (-%4,6) eta Gipuzkoan (-%2,0) jaitsi da; Bizkaian, aldiz, igo da (+%1,4).

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Hirugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua -%7,6 jaitsi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 188.310koa izan da

2023ko laugarren hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 105.828koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %7,6 gutxiago. Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean -%4,8eko jaitsiera izan da; gizonezkoen artean -%10,3koa.

7. Grafikoa. **EAEn kontraturen bat sinatu duen pertsona kopuruaren bilakaera, hiruhilekoaren arabera**



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %42,6k Derrigorrezko ikasketak ditu, %22,8k Batxilergo ikasketak, %17,8ek Unibertsitateko ikasketak eta %16,0k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2023ko laugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko taldea nabarmendu da, %26,8ko pisuarekin; 24 urtetik beherako pertsona taldeak jarraitzen dio (%24,1). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratatuko pertsona kopuruan igo den talde bakarra 54 urtetik gorakoena izan da (+%3,72).

Nazionalitateari dagokionez, kontratatutako pertsonen %79,4a bertakoak dira eta %20,6k atzerriko nazionalitatea dute (aurreko hiruhilekoan baino 0,7 puntu gehiago). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (%52,2), Afrika iparraldekoak (%15,0) eta Europar erkidegokoak eta ez erkidegokoak (%14,4).

Laugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopurua**ri dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 188.310 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 1,8 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, %1,5 igo da sinatutako kontratu kopurua.

8. Grafikoa. **EAEn sinatutako kontratu kopuruaren bilakaera, hiruhilekoaren arabera**



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan-kontratu motaren arabera, joera berdinak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %24,5 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,7 puntu gutxiago) eta %75,5 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %35,9 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,1 puntu gehiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoa da sinatutako kontratuen kopurua jaitsi den lurralde bakarra (-%5,5); Bizkaian eta Araban, berriz, igo da (+%5,1 eta +%3,6, hurrenez hurren). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%49,6; 93.376); jarraian Gipuzkoa (%29,2; 55.031) eta Araba (%21,2; 39.903).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: *Ostalaritza* (%13,5), *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%12,5) eta *Manufaktura industria* (%12,1). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea *Manufaktura industria* da (%18,7) eta emakumezkoen artean *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%19,1).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia-tasa %7,0koa izan da eta okupazio-tasa %52,1ekoa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **okupazio-tasa**[i] %52,1ekoa izan da (%56,4 gizonezkoen kasuan eta %48,1 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 976.400ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 500 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 508.000ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,1 gutxiago) eta 468.500ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %0,2 gehiago).

Adinari dagokionez, okupazio-tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%81,3), 394.900 landun. Bestalde, okupazio-tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%24,5), 46.700 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 25-44 urte bitartekoa izan da (+%1,3); izan ere, bilakaera positiboa izan duen talde bakarra.

Lurralde Historikoei dagokienez, Araba izan da okupazio-tasarik handiena izan duena (%53,0), jarraian Gipuzkoa (%52,9) eta Bizkaia (%51,3). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araba izan da igoera izan duen lurralde bakarra (+%1,4). Bizkaiak eta Gipuzkoak, ordea, %0,2ko jaitsiera izan dute .

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, *Zerbitzuen sektorea* izan da okupatu gehien izan duena (%73,0). Ondoren, *Industria sektorea* (%20,6), *Eraikuntza sektorea* (% 5,7) eta *Lehen sektorea* (%0,8).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %78,6k kontratu mugagabeak-finkoak izan dituzte EAEn eta %20,8k aldi baterako kontratuak. **Lanaldi mota**ri dagokionez, soldatapekoen %82,5k lanaldi osoko kontratuak izan dituzte eta %17,4k lanaldi partzialekoak.

Hirugarren hiruhilekoan, EAEko **langabezia-tasa** %7,0koa izan da (%7,1 gizonezkoen artean eta %6,9 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 73.100 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 5.800 pertsona gutxiago (gizonezkoen kasuan -%3,5 jaitsi da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan -%11,3).

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%5,5); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%7,9) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%14,8). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua murriztu egin da adin talde guztietan: 16-24 urte bitartekoenean -%18,2; 25-44 urte bitartekoenean -%7,7 eta 45 urtetik gorakoenean -%4,4.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%5,3), jarraian Araban (%7,6) eta Bizkaian (%7,7). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, murriztu da langabetu kopurua Gipuzkoan -%15,5a; Bizkaian -%5,4a eta Araban -%1,6a.

Ikasketa-mailaren arabera, txosten hau egiteko unean argitaratutako azken datuen arabera, 2022ko laugarren hiruhilekoari dagozkionak, langabetuen %46,8k bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, %27,8k oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, %25,4k goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen %73,7 bertakoak dira; atzerritarrak, beraz, %26,3.

[i] Eustatek erabiltzen duen okupazio-tasaren definizioa Eurostaten eta INEren enplegu-tasaren baliokidea da.